



INGURUMENEO ZUZENDARI NAGUSIAREN EBAZPENA, GABIRIAKO BEKO ERROTA BASERRIAREN INGURUAREN PLAN BEREZIARI DAGOKION INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN EBALUAZIO BATERATUARI BURUZKO ERREFERENTZIAKO TXOSTENA EMATEKO

1. AURREKARIAK

Otsailaren 27ko 3/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesten duen Lege Orokorrak, 41. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, eta halaber 2003ko uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratua egiteko prozedura arautzen duenak, 3. artikuluan ezarritakoa betez, plan bereziei, lur-eremu hiritarrezinean eragina dutenean, beharrezkoa den ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratua egiteko prozedura ezarri beharko zaie ezinbestez. Aipatutako dekretuaren 6. artikuluan xedatzen denaren arabera, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratuari buruzko azterlana egiteko, prozedura hori bete beharreko planetakoren bat gauzatu nahi dutenek kontsulta egin ahal izango dute eskumena duen ingurumen-organon, ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanean jaso behar den informazioaren zabalerari eta zehaztasunari buruz.

Era berean, Zenbait Plan eta Programak Ingurumenaren gainean duten Eragina ebaluatzeari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legeak plan bereziak hartzen ditu bere ezarpen-eremuaren barruan. Legearen 9. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, ingurumeneko organoak ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostenaren irismena eta xehetasunaren nahiz espezifikotasunaren maila zehaztuko ditu erreferentziako agiri baten bidez, eragindako administrazio publikoak eta publiko interesduna identifikatu eta haiei kontsulta egin eta gero. Agiri horretan jasota egongo dira, halaber, ingurumen-irizpide estrategikoak eta ingurumen-helburuen adierazleak, eta baita egoera bakoitzean ezartzekoak diren iraunkortasunaren printzipioak ere.

2011ko martxoaren 11n, Gabiriako Udalaren idazki bat sartu zen GFAko Garapen Iraunkorreko Departamentuaren erregistroan. Horren bidez jakinarazi zuen Beko Errota baserriaren Plan Berezia osatzen duten dokumentuak igortzen zituela, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratuari buruzko azterlana barne, egokia den txostena ematearen ondorioetarako.

Plan Bereziaren bidez, 21.212 m²-ko azalera duen lur-eremu hiritarrezinaren hirigintzako ingurunea eta antolaketa xehatua zehaztu nahi dira, bertan dauden eraikinak finkatzeaz gain, turismora begira zortzi bungalow ezartzea ere ahalbidetzeko. Gabiriako Hiri Antolaketak Arauen 3.5.8. artikuluan ezartzen den bezala, lur-eremu hiritarrezinako eraikin berrietan hirugarren sektoreko erabilerak gauzatzeko komunitate-ekipamendua jarri nahi denean, aginduzkoa den plan berezi bat egin eta onartu behar da aldez urretik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak du Beko Errota baserriaren ingurunearen Plan Berezia behin betiko onartzeko benetako eskumena, eta, honenbestez, otsailaren 27ko 3/1998 Legeak 44. artikuluan ezarritakoa betez, eta Garapen Iraunkorreko Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko maiatzaren 20ko 36/2008 Foru Dekretuaren 11.2.1. c) artikuluekin bat etorruta, Ingurumen Zuzendaritza Nagusi honi dagokio plan eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratuan kontuan hartu beharreko alderdiei buruzko ebazpenak ematea.

Eskaera jaso eta gero, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak hasiera eman zion eragindako administrazioak eta publiko interesduna identifikatzeko eta horiei kontsulta egiteko izapideari, Zenbait Plan eta Programak Ingurumenaren gainean duten Eragina ebaluatzeari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legeak 9. artikuluan aurreikusitakoa betez.

Txosten hau da, hain zuzen ere, Zenbait Plan eta Programak Ingurumenaren gainean duten Eragina ebaluatzeari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legearen 9. artikuluan aipatzen den erreferentziako agiria, eta erantzuna ematen dio uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak,



Ingurumenaren gaineko Eragina ebaluatzeko Baterako Azterketaren Prozedura arautzen duenak, 6. artikuluan aurreikusitako kontsulta-izapideari.

2. EGINDAKO KONTSULTAK

Apirilaren 28ko 9/2006 Legeak, Zenbait Plan eta Programak Ingurumenaren gainean duten Eragina ebaluatzeari buruzkoak, 9. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eragindako administrazio eta erakunde hauek identifikatu eta kontsultatu dira:

- GFAko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza
- GFAko Kultura Ondarearen Zuzendaritza
- GFAko Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendaritza
- GFAko Bide Azpiegiturarako Departamentuko Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza Nagusia
- GFAko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza
- GFAko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetzako Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza
- GFAko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Plangintza, Ebaluazioa eta Kontrolerako Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitateko Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritza
- Gipuzkoako Ur Kontsultazioa
- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa
- Sasieta Mankomunitatea
- IHOBE
- Uraren Euskal Agentzia
- Eguzki talde ekologista
- Ekologistak Martxan Gipuzkoa talde ekologista
- Aranzadi Zientzi Elkarte
- Goieki
- Goimen
- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa
- ENBA (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna)
- EHNE (Euskal Nekazarien Batasuna)

Txostenak emateko ezarritako epea igaro eta gero, administrazio edo erakunde hauen erantzunak jaso ditugu: GFAko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa, Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Saileko Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza, IHOBE, SA Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza. Txostenen kopiak gehitu ditugu, aurretiazko txosten honetako eranskin moduan.

GFAko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiak egindako txostenean adierazi du Gipuzkoako Foru Aldundiak aurreikusita daukala Gabirian saneamendu-proiektu bat gauzatzea, egun ibaira egiten den isurketa kentzeko eta hondakin-urak Ormaiztegi udalerrian kokatuta dagoen hodi-biltzailera bideratzeko; hala bada, proiektua gauzatu eta gero, instalazioak ibaiaren ezkerreko aldean, PR-10ean, aurreikusita dagoen hodi-biltzailera konektatu beharko dira.

Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak adierazi du uraren herri-jabarigunea eta bere zaingunea kudeatzeko Uraren Euskal Agentziaren eta Konfederazioaren artean egiten den



lankidetzan administratiboari jarraituz, Uraren Euskal Agentzia (URA) izango dela bi administrazio hidraulikoek egindako txostena igorriko duena.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Saileko Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritzak, bere aldetik, uste du bertan Beko Errota baserriko goi-tentsioko linea eta dorrea egonda, komenigarria litzatekeela eremu elektriko, magnetiko eta elektromagnetikoen neurketak egitea.

Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak Plan Bereziaren sartu beharreko ingurumen-irizpide estrategikoak eman ditu, eta baita Plana prestatzean kontuan hartu behar diren planen zerrenda ere.

Azkenik, **IHOBE**, **SAK** jakinarazi du esku hartu beharreko alderdian ez dagoela Lurzorua kutsa dezaketen Jarduerak edo Instalazioak izan dituzten edo dauzkaten Lurzoruen Inbentarioari buruzko irailaren 30eko 165/2008 Dekretuan jasotako lursailik.

Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, Kultura Ondarearen Zentroaren bitartez, adierazi du Beheko Errota Ondare Historiko eta Arkitektonikoko osagarria dela, eta San Esteban basilizaren ingurua ustezko arkeologia-eremua dela.

Erreferentziako agiri hau eman eta gero erantzunen bat jasoz gero, Gabiriako Udalari igorriko zaio ahal den eperik laburrenean, Plan Bereziaren idazketa eta Ingurumenaren gaineko Eragina ebaluatzeko Baterako Azterlana egitean aintzakotzat har dadin.

3. INGURUMEN IRIZPIDE ESTRATEGIKOAK

Plan Bereziaren kontuan hartzen diren ingurumen-irizpideak bateragarriak izan beharko dira Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategian (2002-2020) ezarritakoekin eta ekainaren 30eko EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 3. artikuluan ezarritakoekin, eta behean adierazitako ingurumen-irizpide estrategikoetan laburbilduko dira, Plan Bereziaren eremua eta helburuak kontuan izanda:

- Dagoeneko artifizialduta dauden lurzoruen erabilerari lehentasuna ematea, lurzoru naturalen eta nekazaritzako lurzoruen galera gutxienez murrizteko eta lurzoruen zigilatzea eta iragazgaiztea saihesteko.
- Plan Bereziaren esparruko "lur-eremu hiritarrezinaren" izaera mantentzea, "hiri-elementu" gehiegi, hala nola altzariak eta argiztapena, ezartzea saihestuta.
- Paisaia alderdia plangintzaren barruan sartzea, eta, beraz, paisaiaren babesa, kudeaketa eta antolaketa sustatzea, Paisaiaren Europako Hitzarmenak ezartzen duen bezala.
- Ibai-ekosistemak babestea eta lehengoratztea, ibaiaren urak eta ibilgua nahiz ibai-ertzak eta ur-bazterreko landaredia barne.
- Basoak, landaredi multzoak eta heskaiak mantentzea eta hobetzea.
- Eraikin berrietan eta espazio libreetan, irizpide hauek ezartzea: eraikigarritasun iraunkorra, eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarrien sustapena.

4. PLAN BEREZIAREN ESPARRUAN DAUDEN ETA INGURUMENAREN IKUSPEGITIK GARRANTZI BEREZIA DUTEN BALIABIDEAK ETA EREMUAK, ETA BABESTEKO HELBURUAK

Plan Bereziaren ezarpen-esparruan, honakoak dira zaindu beharreko ingurumen-baliabide nagusiak:



- a) **Estanda ibaiaren ibai-ekosistema**, ibai-ibilguak eta ertzean dagoen ur-bazterreko landarediak osatua, eta *ondo kontserbatutako landaredia duen ibai-ertz* moduan kalifikatua, EAEko Ibai- eta Erreka-ertzak antolatzeko Lurraldearen Alorreko Planaren arabera. Plan Berezian gehitu beharko dira Planean jasotako jarduketek ur-masaren ezaugarri kimiko edo morfologikoetan eragin negatiboa izan ez dezaten beharrezkoak diren neurriak, eta baita ibai-ertzak naturalizatzeko neurriak ere: ibilguaren ondoko bideak hartutako zona eta ur-bazterreko baso bat lehengoratzea.
- b) **Basoak babesteko eremuko basoak**; Planean jaso beharko da eremu horietan eragin nabarmenak saihestu behar direla eta landare-eraketa naturalak lehengoratu behar direla ahal den leku guztietan.
- c) **Beko Errota izeneko errota**. *Udalerrri-mailan babesteko proposatutako ondasun higiezin*a da, eta gomendagarria da mota horretako ondasunetan obrak eginez gero, bolumetria, kanpoko irudia nahiz oinarritzko banaketa topologiko eta egitura-banaketa mantentzea.

5. INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINA EBALUATZEKO BATERAKO AZTERLANAREN EDUKIA ETA NONDIK NORAKOA

Ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzeko baterako azterlanak zer eduki izan behar duen zehaztuta dago Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratua egiteko prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuaren eranskinean. Era berean, Ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzeko baterako azterlanean jaso beharko da apirilaren 28ko 9/2006 Legeak, zenbait plan eta programek ingurumenean dituzten eraginen ebaluazioari buruzkoak, ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostenei dagokienez, l. eranskinean aurreikusitakoa.

Erreferentziako agiri hau emateko Gabiriako Udalak igorritako dokumentazioak badu dagoeneko ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratuari buruzko azterlan bat, planen ingurumen-ebaluazioa egiteko araudiak xedatutako atalak barne. Hori kontuan izanda, azterlanaren edukien zerrenda zehatz bat eskaini beharrean, erreferentziako dokumentu honetan gabeziak adieraziko dira eta dagoeneko idatzita dagoen azterlanean ingurumen-organo honen arabera osatu beharreko alderdiak zeintzuk diren zehaztuko da, Planaren ingurumen-eraginari buruzko behar bezalako balorazioa egiteko eta egokiak diren neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak ezartzeko.

Horrez gain, azterlanaren edukiak eguneratu beharko dira, azterlana idatzi denetik eremuan burututako jarduketan ondorioz egun dagoen egoera kontuan izanda.

Beraz, proposatzen dugu ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioari buruzko baterako azterlanaren edo ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostenaren ondorengo bertsioak jarraian adierazitako alderdietan osatu edo/eta zuzentzea:

- 1) Azterlanean, beste plan eta programa batzuekiko elkarreragina aztertzeke atalean, honako balorazio hauek jasoko dira:
 - a) *Gabiriako Ugarana-Bekoa auzoko eremu baten zonakapen globala egokitzeari eta hirigintza arauetako 3.5.8 artikulua zati batean aldatzeari dagokien hiri antolaketako arauen aldaketa* onartzeko erabili ziren ingurumen-baldintzak Plan Berezinari gehitzeko modua arrazoitzea.
 - b) EAEko Ibai-ertzak eta erreka-ertzak antolatzeko eta babesteko Lurraldearen Arloko Planean ezarritakoaren arabera utzi beharreko tarteen eta gainerako zehaztapenen



betetze-mailaren azterketa, bai dagoeneko eraikita dauden eraikin eta azpiegituretan, bai Plan Bereziaren aurreikusita daudenetan.

- 2) Planak eragindako eremuko ingurumen-azterketa, -diagnosia eta -balorazioa atalean, ingurumenaren deskribapena eguneratu beharko da, agiriak idatzi zirenetik burutu diren eraikuntza, instalazio eta aldaketa morfologikoak kontuan hartuta.

Era berean, ingurumen-diagnosian behe-maiztasuneko energia elektrikoa garraiatzeko dorreek sortutako eremu elektriko, magnetiko eta elektromagnetikoen gaineko azterlan bat eta horien giza osasunari dagokionez duten garrantziaren balorazioa jaso beharko dira.

Aipatutako azterlanean gehituko da 183/2003 Dekretuaren eranskinetako 9. atalean jasotako dokumentazio grafiko eguneratua, eta horrez gain, iraunkortasunari buruzko txostenari dagokionez, bete beharrekoa izango da ekainaren 30eko 2/2006 Lurzoru eta Hirigintzari buruzko Legea garatzen duen ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuak, Larrialdiko Neurriak arautzen dituenak, 31. artikuluan ezarritakoa, hau da:

- Antolaketaren barruko eremuan dauden arrisku naturalen mapa bat jasoko da bertan.
- Horrekin batera, eta planean adierazitako aurreikuspenetan oinarrituta, lurzoru horiek duten harrera-ahalmenari buruzko azterketa egingo da, txosten hauek kontuan hartuta:
 - Administrazio hidraulikoaren txostena, eskaera berriei erantzuteko beharrezkoak diren ur-baliabideak badauden eta uraren herri-jabarigunearen babesaren egoera zein den jakiteko.
 - Errepideen eta lehendik dauden gainerako azpiegituren alorrean eskumena duten administrazioen txostena, planaren barruko aurreikuspenek izan dezaketen eraginari buruzkoa.

- 3) Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratu edo estrategikoari buruzko araudiak ezartzen du hautabideen azterketa egin behar dela, eta azkenean erabakitzen den irtenbidea ingurumenaren ikuspegitik arrazoitu behar dela.

Plan Bereziari dagokionez, egindako jarduketek (sarbideak egitea, lurzoru birmoldatzea, etab.) nahiz dauden muga fisikoek eta ingurumen-mugek oinarritzko antolaketa dagoeneko definitu eta baldintzatu dutenez gero, zaila da oinarritzko antolaketa ordezko hautabide guztiak kontuan hartzea Plan Bereziaren ezarpen-esparruaren barruan.

Beraz, kasu honetan, hautabideen azterketa mugatu ahal izango da, funtsean, ingurumenaren ikuspegitik hainbat aukera alderatzera, bungalow-kopuruari eta horien tipologiari dagokienez zein erabilgarri dauden zerbitzu-sareei dagokienez –ur-hornidura, hondakin-urak bildu eta araztea, argiztapena, eta abar–.

- 4) Eraginen identifikazio eta balorazioa atalean, ingurumen-eragina sortzen duten jarduketatzat hartuko dira Plan Bereziaren helburua lortzeko (turismo-ostatu espazio bat garatzea) burututako guztiak, eta kontuan hartuko dira, egiteke dauden jarduketez gain (bungalowak eraikitzea, etab.), helburua erdiesteko dagoeneko garatu direnak (sarbideak egitea, ostatuak kokatzeko plataformak prestatzea, argiztapena, etab.).

- 5) 2011ko otsailaren 22ko Diputatuen Kontseiluak Gabiriako Hiri Antolaketa Arauak Uranga Bekoari dagokionez zati batean aldatzea onartzeko hartutako erabakian xedatu zen beharrezkoa zela zonaren antolaketa zehazteko Plan Bereziak hainbat neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaile jasotzea.

Neurri horietako asko irizpide eta gomendio orokor moduan adierazi ziren, eta hala jasota daude Plan Bereziaren hasierako dokumentuetan, ingurumenari buruzko agiria barne. Plana



izapidetzen den bitartean, neurri horiek xehetasun gehiagoz adierazi beharko dira, gutxienez eremuaren antolaketarekin lotura garbiena dutenek (sarbidea lekualdatzea, ur-bazterreko landaredia eta baso mistoa lehengoratzeta, eta abar) izan beharreko ezaugarriak ondo zehaztuta geratzeko moduan behin betiko onespena duen Plan Berezian (neurriaren deskribapena, gauzatzeko epea, kostua eta finantzaketa).

Horrez gain, irizpide zehatzak ezarriko dira, geroago, jardueraren udal-baimena lortzeko egiten den proiektuan, turismo-jarduera garatzeko garrantzitsuenak diren neurriak definitzeko.

Lehengoratzeko proiektua diseinatu eta planifikatzean, kontuan hartuko dira alderdi hauek:

- a) Beko-Errota baserriaren hegoaldean dagoen hegian proposatu den hostozabalen landaketari Energia eta Meategien zuzendariak 2007ko urtarrilaren 29an goi-tentsioko airetiko linea elektrikoak zuhaiztietatik igartzeko berariazko preskripzioak ezartzeko emandako Ebazpenean adierazitako mugak ezarri behar zaizkio.
- b) Eremuko hego-mendebaldean hostozabal-saila berritzeko proposamena berriz definituko da, lurzorua errealitate berria ikusita, eta, nolana ere, bermatu egingo da hasieran proposatutakoa adinako azalera lehengoratuko dela.
- c) Bidearen trazatu berriaren eta Estanda ibaiaren arteko lur-zerrenda naturalizatu egingo da, ibai-ibilgutik hurbilen dagoen sarbidea ezabatzea, instalatutako luminariak kentzea eta ur-bazterreko landaredia lehengoratzeta barne.

Ur-bazterreko landaredia lehengoratzeko, haltzadi kantabriarreko espezie autoktonoak erabiliko dira (zuhaitz-geruzan: *Alnus glutinosa*, *Acer campestre*, *Fraxinus excelsior*, etab.; eta zuhaixken artean: *Cornus sanguinea*, *Corylus avellana*, *Crataegus monogyma*, *Fragula alnus*, *Rosa gr canina*, *Rubus ulmifolius*, *Salix atrocinerea*, *Salix caprea*, *Viburnum lantana*, etab.), betiere administrazio hidraulikoarekin ados jarrita.

Lehengoratzeko proiektuan jasoko dira landare-diaren segimendua egiteko eta mantentzeko jarduketak, eta, hala badagokio, landare-espezie exotiko inbaditzaileak kontrolatzea eta errotik kentzea.

Gainerako neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileei dagokienez, kontuan hartuko dira alderdi hauek:

- a) Eremuko kanpo-argiztapenerako kontsumo txikiko luminariak erabiliko dira, beharrezko duten alderdietara soilik zuzenduta, gainerako landako lur-eremuan argi-kutsadura minimizatzen nahiz energia aurrezteko. Ildo horretan, komenigarria da gaur egun instalatuta dauden "bola" motako luminarien ordeztzea, hainbesteko argi-kutsadura sortzen ez duten eta energia gutxiago kontsumitzen duten beste batzuk ipintzea. Nolanahi ere, argi horiek ibaitik gertuen dagoen zerrendatik kendu beharko dira, zona hori argirik gabe utzita.
- b) Instalazioetan eta eraikuntzan energia-eraginkortasuneko eta baliabide naturalak (lurzorua, ura, eta abar) aurrezteko irizpideak erabiliko dira, helburu hauekin:
 - o Ahal dela, hiritartzeko orduan, zolatu daitezkeen eta iragazkorak ez diren alderdiak mugatuko dira, luraren iragazpen-ahalmen naturala mantendu ahal izateko. Oinezkoentzako espazioetan eta ibilgailuetarako bideetan, euriarekiko iragazkorak diren materialak erabiltzea proposatuko da.
 - o Bungalowak egiteko erabilitako eraikuntza-materialak isolamendu termiko oso ona eduki beharko dute, eta ahal den iraunkorrenak izango dira; era berean, ahalik eta



gutxien kutsatu beharko dute, eta nolabaiteko eraginkortasun termiko eta energetikoaz hornitu beharko dituzte ostatuak.

- o Eguzki-energia biltzerakoan, eraginkortasuna kontuan hartuko da, eraikitzen diren eraikin berrien orientazioak zehazteko eta portaera energetikoa hobetzeko (batez besteko tenperatura altuagoa, berokuntzaren kontsumo txikiagoa, eta abar), eta eguzki-argia aprobetxatzeko (elektrizitatearen kontsumo txikiagoa).
 - c) Behin Gabiriako saneamendu-proiektua gauzatu denean, hondakin-urak husteko sistema hodi-biltzaile nagusiarekin lotu beharko da PR-10ean grabitatez, edo beste edozein erregistro-putzurekin, ponpaketaren bidez.
- 6) Planak gauzatzeko ingurumen-ebaluazioari buruzko araudiak xedatzen duen bezala, azterlanean planaren bideragarritasun ekonomikoari buruzko txosten bat gehitu beharko da, Plan Berezia gauzatzean sor litezkeen eragin negatiboak prebenitu, murriztu edo leuntzeko neurriak barne.

Planeko jarduketan eta ingurumen-eraginak saihestu, leundu edo konpentsatzeko beharrezkoak diren neurri asko oso ondo definituta daudenez gero, bideragarritasunari buruzko txostenean jaso beharko da neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileen aurrekontu xehatua, eta baita Planaren eraginak gainbegiratzeko programarena ere; era berean, Plana gauzatzeko epe bat ezarriko da eta finantzatzeko iturriak adieraziko dira.

6. INFORMAZIOA EMATEKO ETA KONTSULTA EGITEKO MODUAK

Apirilaren 28ko 9/2006 Legeak, Zenbait Plan eta Programak Ingurumenaren gainean duten Eraginaren Ebaluazioari buruzkoak, 9. eta 10. artikuluetan ezarritakoa betetzeko, informazio- eta kontsulta-moduei dagokienez, Gabiriako Udalak honako jarduketa hauek egingo ditu:

- a) Eragindako herri-administrazioei eta interesa duen publikoari kontsulta egingo die, Plan Bereziaren lehen agiriaren bitartez eta Planari dagokion ingurumen-eraginaren ebaluazio bateratuari buruzko azterlanaren bitartez.
- b) Planaren lehen agiria eta dagokion ingurumen-eraginaren ebaluazio bateratuari buruzko azterlana jendaurreko informazioan jarriko da, aldizkari ofizialean iragarkia argitaratuta. Gutxienez 45 egun egongo dira, agiriak aztertzeke eta oharrak egiteko.

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira eraginpeko herri-erakundetzat eta interesa duen publikotzat: erreferentziako agiri hau idazterakoan Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak kontsultatutako administrazioak eta erakundeak (agiri honetako 2. atala), eta udalak identifika litzakeen herri-mailako erakundeak (auzotarren elkarteak, herritarren foroak, eta beste erakunde batzuk).

7. INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINARI BURUZKO AURRETIAZKO TXOSTENA ESKATZEA

Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratua egiteko prozedura arautzen duen 2003ko uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak 17. artikuluan ezarritakoa betez, Plan Berezia onartu aurretik, Gabiriako Udalak Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari eskatu behar dio Ingurumenaren gaineko Eraginari buruzko Aurretiazko Txostena egin dezan, eta eskaerari erantsi behar dizkio Planaren lehen agiriaren eskaera, eta ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzeko baterako azterketarena, erreferentziako agiri honetako 3. atalean zehaztutako edukia duena.



Donostian, 2011ko maiatzaren n

INGURUMENEN ZUZENDARI NAGUSIA,

Izp.: JAVIER ZARRAONANDIA ZULOAGA